Gipuzkoako Xake Azkarreko Txapelketa

2024

Txapelketaren oinarriak

1. GXFn federatuta dauden jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.
2. Apirilaren 28an jokatuko da.
3. Txapelketa antolatzeko baimena duen klubean jokatuko dira partidak. Txapelketaren ordutegia deialdiarekin batera jakinaraziko da.
4. Txapelketaren joko-erritmoari dagokionez, FIDEko xake-arauak aplikatuko dira.
5. Joko-erritmoa 15 minutukoa izango da jokalari eta partida bakoitzeko, eta 5 segundo gehituko dira lehenengo jokalditik.
6. Txapelketa honela jokatuko da: jokalari-kopurua 9 baino txikiagoa bada, Liga sistemaren bidez (Round Robin); 9 eta 15 jokalari artean badaude, sistema suitzarraren bidez, 5 txandatan; eta 15 jokalari baino gehiago egonez gero, sistema suitzarraren bidez, 7 txandatan.
7. Epaileak txanda hasteko agindua eman eta hortik 15 minutura jokalaria ez bada taulara agertu, jokalari horrek partida galduko du.
8. Txapelketa sistema suitzarrez jokatzen bada, birritan ez bertaratzeak, justifikatuta egon ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du. Epaileak erabaki ahal izango du lehen txandara bertaratzen ez den jokalaria kanporatzea. Jokalariak epaileari txanda argitaratu aurretik jakinarazten badio bertaratuko ez dela, ez da ez bertaratutzat hartuko.
9. Txapelketa Liga-sistemaren bidez egiten bada (Round Robin), birritan ez bertaratzeak, justifikatuta egon ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du. Jokalari batek txapelketako partiden erdia baino gutxiago jokatzen badu, emaitza guztiak baliogabetuko zaizkio sailkapena egiteko.
10. Txapelketa sistema suitzarraren bidez egiten bada, puntuaketan berdinduz gero, berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

a) Bucholz, emaitzarik txarrena kenduta

b) Bucholz, guztira

c) Sonnenborn-Berger

d) Garaipen-kopurua

e) Zozketa

Bucholz kalkulatzeko, jokatu gabeko partidarik egonez gero, erabilitako programak aplikatutako zuzenketaren bat egingo da, epailearen irizpidearen arabera. Adibidez, Swiss Managerraren aurkari birtuala izeneko menua aplikatzea.

11. Txapelketa Liga sistemaren bidez egiten bada (Round Robin), berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

a) Sonnenborn-Berger

b) Berdindutakoen arteko emaitza partikularra

c) Garaipen-kopurua (ez bertaratzeagatik irabazitakoak barne)

d) Txapelketako pieza beltzen kopurua (jokatu gabeko partidak barne)

e) Pieza beltzen kopurua berdindutakoen artean

f) Zozketa

Berdinketa hausteko sistema bat aplikatzearen ondorioz berdinduta dauden jokalarien kopurua gutxitzen bada, berdinketa hausteko sistemak berriro aplikatuko dira hasieratik.

12. Joko-aretoan ez da analisirik onartuko.

13. Jokalariek ezingo dute joko-aretotik atera beren partida jokoan dagoen bitartean, epaile-taldeko kideren baten baimenarekin ez bada. Hark, txandaren egoera orokorra edo irteteko beste baimen batzuk baloratu ondoren, ateratzeko baimena ematen dion ala ez erabakiko du. Jokalariek ezingo dute analisi-gelara sartu partidak abian dauden bitartean.

14. GXFk epaile bat edo gehiago izendatuko ditu txapelketa honetarako.

15. Garaikurrak egongo dira lehen hiru sailkatuentzat.

16. Txapelketan parte hartzen dutenek baimena ematen diote antolatzaileei ekitaldia behar bezala zabaltzeko egokitzat jotzen dituzten komunikabideetan beren datu pertsonalak argitaratzeko (emaitzak, sailkapenak, partidak, argazkiak, etab.).

17. Txapelketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek eta aplikatu beharreko gainerako araudiak onartzea eta betetzea.